



Euskal Autonomia Erkidegoko gazte justizia sistemaren barne sartzen diren nerabe migratzaileen egoera.

(La situación de los adolescentes migrantes que entran en contacto con el sistema de justicia juvenil en la Comunidad Autónoma Vasca)

(The situation of adolescent migrants who come into contact with the juvenile justice system in the Basque Autonomous Community)

Arantzazu Ordóñez Manterola*

Laburpena:

Ikerketaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren Sistematik igaro diren Latinoamerikako eta Magrebeko gazteen esperientziak ezagutu nahi dira. Magrebetik eta Latinoamerikatik datozen gazteek lehenik integratze prozesu zailagoak izan ohi dituzte beren migrazio prozesuak direla eta. Ikerketak beren bidaiari zein nolako bizipenak pasatzen dituzten argitu egiten ditu batik bat. Baita ere, zer nolako beharrak eta erronkak aurre hartzen dituzten. Halaber, adingabeak zirenean delituak egiteagatik kondenatu dituzten neurriei buruz dituzten esperientziak eta pertzepzioak ezagutu nahi izan dira. Galdera horien erantzunak aurkitzeko, gazte delinkuentziari eta legeriari buruzko literaturan murgilketa egin da. Baita Euskadiko Gazte Justiziaren estatistiketan oinarritu gara, izan ere oso deigarria da bi kolektibo hauen ikusgarritasuna barneratze neurrietan. Datu enpirikoak magrebtar eta latino-amerikar gazteekin egindako hamabost elkarrizketa erdiegituratu bidez bildu dira. Ildo honetan, emakumeak edo beste kolektibo desberdinak baztertu egin dira ikerketarako. Emakumeen aldetik beste opresio eta egoera

Aurrean daukagun lana Oñatiko Lege eta Soziologia Institutuko nire tesiaren euskerazko laburpena da. Lanaren motibagarritasuna Magrebeko eta Latinoamerikako gazte migratzaile delitugileen egoera heltzea da haien errealitatea aztertu eta ezagutarazteko. Horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justizia Sistemaren dauden edo egon diren gazteekin aurrez aurre elkarrizketatu gara. Helburua gizarte sektore honen irudi bat egitea da, haien ekintzak eta egoerak zehaztuz, irudi erreala izateko helburuarekin.

Lan hau ez zen posible izango Oñatiko Institutuan lanean dauden pertsona guztien gabe ezta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Oñatiko Soziologia eta Zuzenbidearen Institutuko sostengurik gabe. Oñatitik batez ere, bi irakasleen laguntza eta konfiantza beharrezkoa izan da: Joxerramon Bengoetxea Caballero eta Matías Cordero Arce. Lehenengoak zuzenbidearen mundua erakutsi zidan. Bigarrenak Gazte Justizia sistemaren mundu hermetiko eta babestuaren barruko ateak ireki zizkidan: gazteak, gizarte hezitzaileak eta Gazte Justiziako baliabide desberdinen arduradunak aurkeztu zizkidan. Lan hau ez zen posible izango ere ez, nire familiaren babesa eta euskarria gabe. Azkenik, Nuevo Futuroko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren profesionaltasuna gabe: haiek dira bost urte eta erdiz gizarte hezitzailea izaten erakutsi didatenak. Bestalde, elkarrizketatutako hamabost gazteak dira nire ustez, ausartenak eta indartsuenak eta eskerrak ematen dizkiet nirekin beren istorio luzeak eta pisutsuak konpartitzeagatik.

* Arantzazu Ordóñez Manterola. Institute of Sociology of Law (Oñati) / Gizarte Hezitzailea/Educadora Social. Email helbidea: arantzazuordonezmanterola@gmail.com



desberdinak igarotzen dituztelako. Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozen pertsonak edo Europako beste lurraldeetatik datozenak ere ez dira kontuan hartu irisgarritasun eta denbora faltagatik.

Hitz gakoak:

Gazteak, nerabeak, migratzaileak, latino-amerikarrak, magrebtarrak, Gazte Justizia Sistema, Euskal Autonomia Erkidegoa.

Resumen:

En la investigación que se resume a continuación hemos querido conocer las experiencias de jóvenes latinoamericanos y del Magreb que han pasado por el Sistema de Justicia Juvenil de la Comunidad Autónoma Vasca. Las y los jóvenes provenientes del Magreb y de América Latina suelen tener procesos de integración más difíciles debido a sus procesos migratorios. La investigación esclarece, sobre todo, qué tipo de experiencias pasan en su viaje, así como sus necesidades y retos. También hemos querido conocer sus experiencias y percepciones sobre las medidas a las que han sido condenados por delitos cuando eran menores de edad. Para encontrar respuestas a estas preguntas, se ha hecho una inmersión literaria en torno a la delincuencia juvenil y la legislación concerniente a ambos colectivos. Las estadísticas de la Justicia Juvenil en el País Vasco dejan entrever que hay una proporción muy elevada de ambos colectivos en medidas judiciales de internamiento. Los datos empíricos se recogen a través de quince entrevistas semiestructuradas con jóvenes magrebíes y latinoamericanos. Las mujeres u otros colectivos diferentes han sido excluidos de la investigación, porque las mujeres pasan por otras opresiones y situaciones diferentes. Tampoco se han tenido en cuenta, por falta de accesibilidad y tiempo, las personas procedentes de África Subsahariana o de otros países europeos.

Palabras clave:

Jóvenes, adolescencia, migrantes, latinoamericanos, magrebíes, Justicia Juvenil, Comunidad Autónoma Vasca.

Abstract:

In the research summarised below, we wanted to learn about the experiences of young people from Latin America and the Maghreb who have gone through the Juvenile Justice System of the Basque Autonomous Community. Young people from the Maghreb and Latin America tend to have more difficult integration processes due to their migratory processes. The research clarifies, above all, what kind of experiences they go through in their journey, as well as their needs and challenges. We also wanted to know their experiences and perceptions about the measures they have been sentenced to for crimes when they were minors. In order to find answers to these questions, a literary immersion has been made around juvenile delinquency and the legislation concerning both groups. The statistics on juvenile justice in the Basque Country show that there is a very high proportion of both groups in judicial detention measures. The empirical data are collected through fifteen semi-structured interviews with Maghrebi and Latin American youths. Women or other different groups have been excluded from the research, because women

go through other oppressions and different situations. Nor have people from Sub-Saharan Africa or other European countries been taken into account due to lack of accessibility and time.

Key words:

Youth, adolescence, migrants, Latin Americans, Maghrebians, juvenile justice, Basque Autonomous Community.

1. SARRERA BEZALA: GAZTE MIGRATZAILEAK ETA GUZTION ELKARLANA

Eskuetan daukagun proiektu edo ikerketa honen xede nagusia gazte etorkin delitugileen errealitate desberdinak ikusaraztea da. Horretarako Euskal Gazte Justizia sistemaren barnealdean sartu gara, magrebtar eta latino-amerikar gazte etorkinek zein nolako migrazio eta integrazio prozesua egin duten jakiteko, eta batik bat beren ahotsetatik entzuteko zein pertzepzio duten islatzeko. Jakinez badakigu unibertsaltasunak batzuetan ez duela ez hankarik ez bururik, baina, patroi oso markatuak jarrai dezakete kolektibo hauek eta Gazte Justizian dauden etorkinen artean errepresentazio handiena dutenak dira. Bigarrenik, betidanik arlo pertsonal eta profesionalek nire pertsonarengan ikusgarritasun handia izan dutelako ekin nion lan honi. Lan honetan gazte hauen ikuspuntu, arazo, ilusio eta bizipenak jaso ditugu. Honen bidez, argazki orokor bat har dezakegu haien egoera zehatzari egokitutako erantzunak emateko: anparatze prozesuetan, Gizarte Hezkuntza arloan Gizarte Politiketan eta Gazte Justizian hain zuzen ere.

Lanaren teknizitatera eta metodologiara abiatuz, hurrengo lerro hauetan azaltzen dira zeintzuk diren lan honen gako nagusiak. Magrebtar eta latino-amerikar gazte delitugileen egoera jasotzeko, lehenik, marko teoriko eta juridikoan lan sakona egin dugu ahalik eta informazio egokiena eta kontrastatuena ateratzeko. Ikerketa hau beharrezkoa izan da estatistikak eta legedia hobeto ulertzeko. Informazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Gazte Justiziaren memorietan, txostenetan eta dokumentu publikoetan islatuta dago. Datu enpirikoak hamabost gazteekin egindako elkarrizketa erdi-egituratuekin lortu dira. Gazte migratzaile hauen artean, hamahiru Gazte Justiziaren sarearen barnean zeuden elkarrizketa egiterako unean, eta bik beren prozesua amaitua zuten. Hamabost pertsona hauetatik bederatzi magrebtarrak dira eta sei latino-amerikarrak.

Aipatu den bezala, emakumeak eta Afrikar hegoaldeko edo beste jatorrietako gazte etorkinak baztertu dira laginean, beste marko eta patroi oso desberdinetan sartzen direlako eta irisgarritasun eta denbora falta egon delako. Aipatu behar da Afrikako hegoaldea herri askoz osatuta dagoela eta adingabe asko beren migrazio prozesuak egiten ari direla herrialde desberdinetatik Afrikako iparralderantz, askok Europara etortzeko asmoan. Hainbeste izan litezke istorioak, helmugak eta “miñak”. Ibrahim Balderen istorioa aipatu nahi dut sarrera honetan. Ginea Konakryko gazte bat da. European bukatu zuen bere migrazio prozesua nahiz eta anaia txikia (*Miñan* bere herriko hizkeran) bilatzeko asmoarekin egin zuen bidai luzea. Bere istorioa Amets Arzallusen laguntzaz idatzita dago “*Miñan*” liburuan. Liburu hau Ibrahim berak idatzia da bere ahotssez (Arzallus Antia eta Balde 2019). Istorio honetan murgilduz, Magrebez haragoko mugimendu migratzaileak hobeto ezagutu daitezke.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. TEORIATIK PRAKTIKARA: NERABEAK, GAZTEAK ETA ADINGABEKO MIGRATZAILEEN PROZESUAK

Lan hau ez da adin biologikoan hainbeste kokatu. Biologiari entzunez gero, gure kontestu sozialean hamalau eta hemezortzi urteko adinak dira nerabezaroarekiko ditugun nozio unibertsal edo simpleenak. Nazio Batuen Erakundeak dio gazte bat hamabost eta hogeita bost urteko pertsona bat dela (NBE 1985). Baina Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea, espainolez UNESCO, nerabezaroa eta gaztetasuna deskribatzen duen modua da lan honetan kontuan hartu izan dena batik bat. Gazteria kontzeptu malgua da eta munduan zehar eta herrialde eta eskualde desberdinen artean aldatu egiten da (Unesco d.g.). Gazte etorkinak batzuetan familia baten barruan migrazioaren figura nagusia izaten dira, eta bestetan familiaren migrazio proiektuaren parte dira. Girók (2008), bere lanean argi azaltzen du: “Urte hauetan identitate bat eraikitzean, nerabea garatzen den eta integrazioa negoziatzen duen esparruen arabera izango da”. Bestetik, “Immigrazioaren seme-alaba diren nerabeek tentsio izugarriak jasaten dituzte”, hau da, jatorriaren eta helmugaren arteko leialtasun-gatazka baten erdian erori daitezke. Horri aipatu dugun identitatearen eraikuntza gehitzen zaio. Azken finean, identitatea eraikitzeko zailtasuna areagotu egiten da “migrazioa” aldagaia gehitzen zaionean. Hau jakinik, gazte hauen migrazio prozesuak hobeto uler daitezke.

Orokorrean, atzerritar gazte migratzaileak haien erreferente nagusien irudia galtzen dute. Baita ere, haien kultura, ezagunak eta jaioterria atzean uzten dute. Alegia, bakarrik eta bere kabuz bidaiatzen duten gazteek banatze prozesu emozionalari aurre egin behar diote: adin goiztiarretik ardura handiak bere gain eramango dituzte edozein migrazio prozesutan. Normalean magrebtarrak bakarrik datoz eta gehien bat hamalau eta hamazazpi urteko gazteak dira, Marokotik etorriak inongo akonpainamendu familiarra izanez (Pulido 2017). Latino-amerikarrak familia bateratze prozesuen parte izaten dira (García-Moreno eta Joan 2013). Hurrengo bi azpiataletan kolektibo bakoitzaren patroia orokorrak azalduko ditugu.

2.1.1. Magrebeko gazteen migrazio prozesuak

Gazte magrebtarrei normalean MENA (Menores Extranjeros No Acompañados)¹ deritzaie baina akronimo hau ez da erabili nahi izan kolektiboa objektibatu egiten duelako (albesteetan, instituzioetan edota jendartearen diskurtsoan). Lan honetan adingabeak eta familia erreferente gabeak bezala aipatzen dira. Gehiengoak bakarrik datoz eta familia erreferente gabeko magrebtar adingabeen migrazioa hain da adierazgarria ezen migrazio-fenomenotzat har baitaiteke (Garavito Sánchez eta Carbarcas 2018). Datuak ikusi behar dira hau ikusarazteko: adingabeen kopuruak gora egiten jarraitzen du urtetik urtera. 2019an, 12.301 izan zen adingabe hauen etorreraren zifra, Espainiako Barne-Ministerioaren zifren arabera (Observatorio de la Infancia 2020). Kopuru horiei agintariak atzematen ez dituztenak gehitzen zaizkie, edo erregularizatu gabe babes-saretik ateratzen direnak eta zenbaki ofizialetatik kanpo geratzen direnak.

¹ Eus: Akonpainamendu gabeko adingabe atzerritarrak.

Magrebeko gazte migratzaileek beren zaugarritasuna edo bulnerabilidadea sendotzen duten aurrebaldintzak dituzte: migratzaileak, adin txikikoak, erreferenterik gabeak, arrazializatuak eta pobreak.

2.1.2. Latinoamerikako gazteen migrazio prozesuak

Gazte latino-amerikarrak aztertuz, haien jatorrizko estatutik estatu helmugara iristen diren gehiengoak emakumeak dira, haien seme alabak aitona-amonekin utziz eta urte batzuk geroago haien familiakideekin berriz bateratzen dira. Gazte latino-amerikarren migrazio prozesuak (bi generoei buruz hitz eginez), migrazio feminizatu batetik abiatzen dira (García-Moreno eta Joan 2013).

Amatasunaren kontestutik ikusiz, amak arduratu ohi dira estatu helmugan gehienetan familiaren migrazio prozesuaz. Ingelesez idatzitako lanean (*“I’m here, but I’m there” the meanings of Latina transnational motherhood*), Hondagneu-Sotelo eta Ávilak “Amatasun transnazonala” izendatu zuten fenomeno migratzaile feminizatu hau 1997an. Behin seme-alabak iristean, inongo laguntzarik gabe hauen ardura bere gain hartzen dute ohikoz. Seme - alabak aipatuz, banatze familiarra, hau da, haien gurasotik ardura papera duten pertsonengandik banatzea suposatzen du, aitona-amonekin edo izeba eta osabekin geldituz. Haur eta gazte hauei begira, urritasun emozional asko bizitzen dituzte doluak eta aldaketa handiak jasaten dituztelako behin beren erreferente nagusiak joaten direnean. Ondoren, emozio hauek zailtasuna suposatzen dute, bateratzeko unean gurasoekin berriro harremana eraikitzeko (Pedone 2006). Azkenik, bateratze prozesuak erregulazioari begira ez dira oso errazak izaten, izan ere, Espainian “egoera irregularrean dauden lau adingabetik hiru Latinoamerikakoak dira” (Save the Children 2021).

2.2. MAGREBTAR ETA LATINOAMERIKAR ADINGABE MIGRATZAILEEN GEHIEGIZKO ORDEZKARITZA EAEKO JUSTIZIA SISTEMAN

Lehenik, Eusko Jaurlaritza, EAEko Gazte Justizia Sistemaren eta Euskal Kriminologia Institutuaren eskutik eratorritako zifra batzuk eskainiko ditugu. Ondoren, Kriminologia eta Soziologiatik eratorritako hainbat gako ikusaraziko ditugu.

2.2.1. Eusko Jaurlaritzaren datuak eta estatistikak

2020 urtean pandemia zela eta, 2019 urtea hartu zen lagin bezala gehiegizko ordezkariak hau hobeto islatzeko. Gazte Justiziako epaileek zortzirehun eta laurogeita zortzi neurri ezarri zituzten bostehun eta laurogeita zortzi gazteei. %71ak neurri bat bakarra izan zuen, %17ak bi neurri eta gainontzekoak hiru edo gehiago (%12). Neurri hauetatik, %41 adingabeko atzerritarrei ezarri zitzaizkien. Magrebtarrei %56, eta %30 latino-amerikarrei (Kriminologiaren Euskal Institutua eta Eusko Jaurlaritza, 2020).

Biztanleriari, adinari eta autonomia-erkidegoei erreparatuz gero (INE 2020), hau da, EAEn bizi ziren hamalau eta hamazazpi urte bitarteko pertsonen artean, %8,2 baino ez dira atzerritarrak. Zifra hauei amaiera emanez, eta Barneratze edo internamendu neurriak (195) %53an etorkinei ezarri zitzaizkien (Kriminologiaren Euskal Institutua eta Eusko Jaurlaritza 2020). Honek esan nahi du neurri honekin dauden gazte edo adingabeen erdia baino gehiago atzerritarrak direla.

2.2.2. Gehiegizko errepresentazioaren gakoak ateratzen

Zergatik gehiegizko errepresentazio hau? Eta zergatik internamendu edo barneratze neurri gehiegi? Gazte migratzaileen “ikusgarritasuna” faktore bat izan daiteke. Hamalau eta hogeituro urte arteko gazteak jarrera antisozialak izateko joera dituzte (Farrington 1996, Serrano 2011). Hala ere, jarrera antisozialak ez dute zertan delituak egitearekin lotura zuzena izan beharrik. Generoaren aldetik, kasuak orokorki hartuz, joera dago gizona gehiago delitu gehiago gauzatzea emakumeekin alderatuz (Moreira 2011). Garrantzitsua da kontuan hartzea nerabeek kontrol sozial gehiago jasaten dutela eta zehatz aztertu beharra dagoela etorkinen ikusgaitasun soziala, hauek beste nerabe baino salaketa zein polizia-kontrol gehiago dituztelako bere gain (Harcourt 2004, Ruiz eta López-Riba 2020). Adibidez, Eusko Jaurlaritzak Gazte Justiziako V. 2020-2024 Planean dituen politikek adierazten dute ideia horrek “sinetsarazten duela gazteen delinkuentziaren arazoak batez ere komunitate migratzaileari eragiten diola, eta ez gizarte osoari” (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila 2020, or. 40). Honekin deskriminalizazio eta justizia errestituzio baten ildoan gaudela suposatzen dugu. Hala ere, ikusten da nola barneratze neurriak hartzen diren batik bat erreferente familiarren faltagatik, eta horrela migratzaile gazteengan gehiago ezartzen da (García España 2009, 2014, Salvador 2013, Ruiz eta López-Riba 2020).

Idea hauekin bat datozen beste autore askoren ikerketetan ikus daiteke gehiegizko errepresentazio honen ikuspuntu anitz. Gizarte Hezkuntza profesiotik begiratuta, bazterkeria sozialak ahultasun faktore batzuk gehitzen dizkie gazte migratzailei. Adibidez, *Hacia un discurso emancipador de los derechos de las niñas y de los niños* liburuan adingabeak agentzia gutxiago eta marjinalitate kontestuan aurkitzen dira eta are gehiago arrazializatuak eta pobreak direnean (Cordero Arce 2015).

2.3. ARLO GARRANTZITSUAK GIZARTE HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK

Bazterkeriaz edo integrazioaz hitz egiten dugunean, faktore asko sartzen dira. Psikologiak, Zuzenbideak eta Soziologiak aztertu egiten duten delitugileen arrazoiak datoz jarraian, baina Gizarte Hezkuntzatik ere bai beharrezkoa da ikustea.

Kriminologian zenbait korrante nagusitzen dira: klasikoa, (indibiduoaren arduraren kontuan hartzen duena eta XX mendean jaioa. Bestea, ingurune sozialaren eraginei begiratzen die. Baina azkenean ideia bi hauek fusionatuz, teoria “multimodal” edo “integratzailea” jaiotzen da (Farrington 1996, Vázquez 2003). Hortaz, faktore pertsonalak eta ingurune sozialaren eraginak aurkitu ditzakegu, hala nola, oldarkortasuna, ezagutza eskasa, jaio aurretiko baldintzak, egoera familiar hautsia, gurasoen delituak, eskolaren eragina, komunitatearen eragina, egoeraren aldakortasuna eta ikuskaritza. Farringtonen lana jarraituz, lotura lineala dago egoera guzti hauen eta delituen gauzatzearekin. Hori bai, aipatu beharra dago lotura hau ez dela beti beteko (1996).

Delitugileen kausak estatistikoki ezin dira zehaztu, baizik eta pertsona bakoitzak bere bakartasun edota indibidualtasun egoeran alde aurretiko jarrera dauka biologikoki pertsonak egiten duen kudeaketa emozionalaren bidez, edota psikologikoki. Indibidualtasun honen adibide dira, erresilientzia, garapen moralak, pertsonen arteko harremanen garapenak (Arce eta Fariña 2007). Baita ere, aipatutako García España (2014) autorearen lanean aztertu dezakegu nola testuinguru marjinalak, delinkuentziarako arrisku gehiago duten ingurunetat hartzen direla. Laburbilduz, eta Albrecht jarraituz, “gizarte-

klaseen arteko banaketa-lerroa, era berean, arraza-banaketaren lerroarekin bat dator” (1997, 17. Orr.). Hau da, pertsona migratzaile asko aukera eta laguntza-faktore gutxiago dituzten inguruneetan finkatzen dira. Honi gehitu behar zaio legez kanpoko egoera administratiboak marjinazio-egoerak sortzen dituela, eta horren ondoren, egoera irregularrean dauden pertsona gehienak latino-amerikarrak eta magrebtarrak direla (García España 2014).

Bestalde, eragin duen beste faktore garrantzitsu bat da bizitzaren aukeren eza eta honek eragiten duen hutsune soziala. Marshallek kontuan hartzen du Magreb edota Latinoamerikatik datozen gazteak, adibide den irudi familiarrik gabe, ahultasun soziala, arraza bazterkeria eta adingabe egoera baldintza hauek baldintzapekoak direla. Egitura sozial legitimoen faltak delituak egitera bultzatzen dituela dio (Marshall 1997).

3. MARKO JURIDIKOA

Justizia Sistematan zein nolako parte hartzea duten azertu baino lehen, lehendabizi umeen zein adingabeen legediak ikusi behar ditugu. Garrantzitsua izango da printzipio orokor batzuk ikustea beren egoerak hobeto ulertzeko:

3.1. NAZIOARTEKO KONTESTUAN

1989ko Haurren Eskubideen Hitzarmena Adingabeen delinkuentzia prebenitzeko Nazio Batuen Erakundeko jarraibideen 40.artikulua (1990eko Azaroa). Artikulu honetan haur edo nerabeen duintasuna eta balioa sustatzen da, “giza eskubideekiko eta oinarritzko askatasunekiko duen errespetua” indartzeko izango direla estatu kideen Gazte Justizia Sistemaren neurriak lege penalen barruan. Eta “kontuan hartuko dituen haurraren adina eta bere berrintegrazioa” funtzio konstruktiboa edo errestituzioa aipatuz.

NBEEn nazioarteko jurisdikzioan ere bai 1985eko Beijing-eko gutxieneko arauak, “haur edo nerabe bat erakunde batean sartzea azken baliabide gisa eta ahalik eta eperik laburrenean erabiltzea” azpimarratzen da (1985). Bestetik, NBEko Gazteen Delinkuentziaren Prebentzioa Riad-en jarraibideetan (1990eko azaroa) gazteek gizartean duten funtzio aktibo eta parte-hartzailearen garrantzia azpimarratzen zuen. Gazteak kontrol eta sozializazio objektu hutsak ez izatea prebenitzen duen nazioarteko ituna da.

3.2. ESTATU MAILA ETA EAEKO KONPETENTZIAK

Estatu mailako ordenamendua nazioarteko lege hauek du oinarria Espainia NBEko erakundearen kidea denez gero. Gorago aipatutako printzipio horiek lege desberdinetan gauzatu ziren eta hauek hartu ditugu erreferentzia bezala:

5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabearen erantzukizun penala arautzen duena, aurrerantzean LORPM. Lege honek teoriarik ez du gaztea gaizkiletzat aipatzen, kaltea konpontzeko ardura duen eta gizarteratze prozesu bat behar duen norbait bezala ez bada. Lege honen fundamentuak deskriminalizazioa, desjudizializazioa eta desinstituzionalizazioa dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren barruko kompetentzian dago justizia printzipio hauek babestu eta sustatzea eta prozesu judizialak

begiraturaz, kasu hauetan gehiago nahi da mediazioaren bidez ekin neurri sendoak baloratzen hasi baino lehen (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila 2020) .

Legedi penala aztertuz, adingabeei ez zaie Zigor Kodea aplikatuko. Aipatutako urtarrilaren 12ko 5/2000 legea aplikatuko zaie, zigor zein hezkuntza² neurriak ezarriz. Euskal araudiei dagokionez, 2005/3, Otsailaren 18ko legeak arau-hausle adingabeei dagozkien jardun-printzipioak eta eskumen-esparrua zehazten ditu. euskal erakunde publikoek adingabeen neurriak betetzen dituzten zerbitzuak eta erakundeak kudeatu, antolatu eta ikuskatzen dituzte (3/2005 otsailaren 18ko Legea, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa).

Eusko Gazte Justiziaren barne egituran neurriei begira, bi organismo nagusi aurki ditzakegu:

- Gazte judiziozko gune sareak: Erdi irekitako edo itxitako zentroetan barneratzeak, hezkuntza taldean elkarbizitza eta asteburuetan gune hezitzailean egonaldiak egiten dira.
- Gune irekiak eta egunezko zentroak: ikuskaritzako askatasuna, gizartearen aldeko prestazioak aurrera eramatea, zeregin hezitzaileak, asteburuetan etxebizitzako egonaldia, tratamendu ambulatorioa eta eguneko zentro batean asistentzia izatea.

Hauek Eusko Jaurlaritzaren kompetentzia dira estatuko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak jarduera-printzipioak eta eskumen-esparrua definitzen dituen bezala. Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailarekin bat etorritik, legea urratzen duten adingabeen arteko gatazka gehienak konponketa-bide informalagoen bidez konpontzen dira, neurri judizialik ezarri beharrik gabe (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila 2020).

4. METODOLOGIA

Marko teorikoa eta juridikoa ikusi ondoren, baldintzapen familiar eta sozio-komunitarioak daudela justifikatu daiteke eta baita ere pertsona bakoitzean egoera guzti hauek eragin ezberdina dutela. Horrela, faktoreak kontuan hartuko ditugu pertsonaren ingurune sozial eta pertsonaren faktore indibidualak bateratuz aipatutako teoria integratzaile eta multimodala jarraituz. Autore hauek guztiak aztertuz eta Gizarte Hezkuntzaren ikuspegi hurbil batetik, gure lanean ondorengo faktoreak kontuan hartu ditugu: egoera pertsonal-indibiduala, familia, eskola eta gizarte egoera. Faktore guzti hauek moldatu beharko dira adingabe gazte etorkin bakoitzaren egoerara, eta babes edo arrisku adierazleak eta beraien egoera administratiboak aztertuko dira.

Lan honetan datu enpirikoak batzeko hamabost elkarrizketa egin dira. Gazte migratzaile hauek adingabeak ziren justizia prozesua hasi zutenean, hau da, hamalau eta hamazazpi arteko adingabeak ziren. Haien elkarrizketak adinezko helduak izanik egin dituzte. Elkarrizketak, lau bloketan banatu nahi izan dira, arlo desberdinei buruzko informazioa hobeto eratortzeko helburuarekin. Blokeak hurrengoak dira:

- (A) iritsi baino lehenagoko historia laburra
- (B) helmugan zer nolako harrera eta integrazioa eduki dute

² (Cas): Medida “socio-educativa”.

- (C) behin neurria izanda zein esperientzia izan duten eta
(D) etorkizuneko espektatibak.

Bestetik, ukitu diren arloak bost dira, babes eta arrisku faktoreetan pisu handiena dutenak hain zuzen ere: arlo pertsonal edo indibiduala, egoera administratiboa, familia, eskola eta arlo sozio-komunitarioa (ingurua, lagunak eta komunitatea).

Elkarrizketatu diren hamabost pertsonetatik bederatzi magrebtarrak dira eta sei latino-amerikarrak. Magrebtarren artean zortzi marokoarrak dira eta bat aljeriarra. Latinoamerikaren jatorrizko herrialdeen artean, Peru, Bolivia, Paraguai, Nikaragua, Argentina eta Brasil aurkitzen dira.

Elkarrizketen baliozkotasuna da Euskal Gazte Justizia Sistema babestua aztertzea, eta baita hutsuneak edota indartzeko gako positiboak bilatzea guztien artean hobeto ulertu eta lantzeko. Horretarako, elkarrizketak egin ostean, analisia egin da aipatutako bost arrisku eta babeste faktoreak kontuan hartuz.

5. ANALISIA

Azpiatal bakoitzaren azpian bi kasu konkritu aukeratu ditut kolektibo bakoitzaren argazki zehatzago bat egiteko eta deskribapenetik haratago ideiak egituratzeko. Konparazio bat ere egin daiteke, baina lan honetan ez da hainbeste sakondu konparaketa, izan ere, beste galdera desberdin batzuk planteatu dira. Lanarekin jarraitzeko eta egoera zehatzago ikus dezagun, adingabe etorkinekin egindako elkarrizketak ikusiko ditugu, gazte magrebtarrekin izandako egonaldiak aztertuz, eta ondoren latino-amerikarrekin.

5.1. MAGREBTARREN INTEGRAZIOA

Hasteko, magrebtar gazteak hemezortzi eta hogeita sei urte zituzten elkarrizketaren unean. Haien guztiak Espainiara iritsi ziren helduen ardurarik gabe, bakartasunean, haien lagunekin edota anaiekin. Adierazten dutenez, Espainiara iristeko itxaropen eta planak anitzak ziren: ikasketak gauzatu, lan egin, bizipenak izan eta bizitza hobea lortu. Baina errealitatea ez zen horrela izan. Delituak gauzatzeko faktore edo arrazoiak haien hitzez ondorengoak ziren: familiarren presentzia eza, autokontrol gutxi, kalean bizitzea, eta abegi zentroko kontestuak. Askok, patera bidez, ferry erabiliz, frontera hesiak pasaz edota estatu ezberdinetatik igarotzen iritsi ziren Europar Batasunera.

Lehen aipatutako bidaietan, etorkin adingabeak bidai irregularrean eta ez legezkoan sartu ziren, aurkituak izateko beldurrez eta honexetatik suertatzen da magrebtar askoren kale egoera. Behin iritsiak estatu helburura, legez kontrako pertsonak dira dokumentazio ezaren ondorioz. Bederatzi gazte hauek kontaktu duten moduan, bakoitzak kontzientzia badu egindako delituen arrazoiei erreparatzen diotenean:

M1 paperik gabe egon zelako estresatu zen eta eguneko zentroan bukatu zuen eta aterpetxe batean bizi da. Berak gauza oso deigarria esaten du: “hemen eskubideak daudelako mundu guztiak hona etorri nahi duen auzo batean jaio nintzen”. M7ren bi anaiak bizitza galdu zuten Mediterraneo itsasoan Europara etorri nahian. Gazte honek barneratze luze batean

jarraitzen zuen elkarrizketa unean. M3k dio familia erreferente falta izan duela eta autokontrol gutxi delituak egiteko arrazoi bezala. M4ri kale egoerak kalte handia egin ziola dio eta inoiz ez dela “pertsona berdina izan” aipatzen du.

Emozio eta itxaropenei begira, haien gehiengoak etsipena zein damutasuna bizi izan dute. Oraingoan itxaropena daukate ikasketa akademikoak bukatzeko helburua izanik, eta etorkizuna duenbizitza bat lortzeko begirada. Baita ere, bere familia laguntzeko desira dute. Espainiara iritsi zirenean ez zekiten eta ez ziren kontziente haien kontrako egoeraz, hau da, bakardade sentimenduaz eta azkenik ahultasun estrukturalaz. Hauetako batzuk biziraun dute kalean biziz edota jangela sozialen zerbitzua hartuz, baliabideen lokalizazioa eta hizkuntzaren ezjakintasuna motxilan kargatuz. Hau guztia instituzioekiko eta baita poliziarekiko beldurra biziz.

Hauetako batek lortu zuen adopziozko familia bat izatea eta badaki gazte askok ez dutela aukera hori izango (M3). Horregatik honek bere estatuko berdinei ez etortzea gomendatzen die. M5ek oso ondo aipatzen du ideia hau bere espainiar hizkuntza tankerarekin: “Ni bide arriskutsu batetik etortzera animatzea ez. Zurea ez den herrialde batera iristen zarenean, ez dakizu ezer, ez hizkuntza, ez jendearekin hitz egin, ez ezer, ez familia ez lagunak ez daudela...”

Etorkin adingabeen hausnarketak aztertuz, gehiengo bat errealitatea gogorra dela eta borroka jarraitu batean bizi behar dela adierazten dute. Migratzaile gazteei mezu argia ematen diete: laguntza ondo hartzea, gauzak egoki egitea, ikasketak gauzatzea eta konpainia “txarrekin” ez elkartzea. Hurrengo parrafoetan aipatutako ingurugiroko babeste eta arrisku faktoreak errepatatuko dira era labur batean analisisa eginez.

Familia arloan, magrebtar adingabeen etorkinak haien estatuetatik ihes egin ohi dute haien gurasoen borondatearen kontra³ eta kasu zehatz batzuetan, abisatu gabe. Beste batzuk behin estatu helburura iristean, gurasoekin harremanetan jartzen, baina bizitako bidaiari buruz gutxienekoa kontatuz, hauek ez kezkatzeko edota larritzeko helburuan. Batzuek kontatu zuten bigarren bizitza baten hasiera izan zela eta faltan zutenbere ingurunearen gauza sinpleak, adibidez, bere etxeko atek. Beraientzako duelu egoera da trantsizio eta aldaketa sakona suposatzen duen adinean.

Magrebtar adingabe migratzaile gehiengoek sozializazioa abegi zentroan hasten dute. Hauentzako babes gunea suposatzen du, heldutasuna alegia hemezortzi urte bete arte bertan egongo direlako, baina errekurtsio gutxiarekin: ratioak, formakuntza falta edota denbora libre asko. “Ghettifikazioa” ematen dela ikusten da: beren berdinekin elkartzen dira, gizartearen kanpo, beren auzo edo bizilekuetan (abegi zentroak). Abegi zentroetan haien gutxieneko beharrak betetzen ohi dira eta gaztelera ikasten dute. Hala ere, elkarrizketan egondako adingabe etorkin batzuen hitzez, nahiago zuten kalean bizi, askatasuna sentitzeko (kontsumitzeko, beren berdinekin egoteko, e.a....). Hezkuntza zein pertsonal falta honek eskolarizazio gutxi du ondorio bezala, eta denbora libre gehiegizkoa denez, drogak kontsumitzea normalizatzen da. Denbora libre izatea ohikoa da adingabe hauen artean. Honi gehitu beharra dago, hezkuntzaren jakintza ezak sozializazio arazoak eta komunitatean barneratzeko zailtasun handiak eragiten dituela. Hezkuntza sakonki aztertuz, adingabe etorkinen gehiengoentzako hezkuntza bere bizitzaren elementu

³ Argitu beharra dago beste kasuetan ez dela horrela izaten.

garrantzitsu bezala hartzen dute, baina bederatzi gazte hauen artean inork ez du lortu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ateratzea. Bik oinarrizko hezkuntza profesionala bukatua dute. Denek bere hezkuntza erdi eginda utzi zuten Espainiara etortzeko bidaia egin zutenean. Lauk ezdute inongo formaziorik jaso etorri zirenetik. Beste batzuek gaztelania kurtsoak jaso dituzte eta barneratze zentroetan egon direnak okintza, zurgintza eta mantenu kurtso ofizialak jaso dituzte.

Egoera administratiboari begira, magrebtar gazte migratzaileen gehiengoak ez daukate haien egoera administratiboa erregulatua. Batzuek, erresidentziabaimena ez dute, beste batzuek baimena erresidentzia dute elkarte bateri esker, beste batzuek dokumentazioa galdu zuten delitua egin eta espetxeratzearen ondorioz. Egoera hauek urduritasuna sortzen die adingabe etorkinei. Barneratze neurria dutenen artean, zentroaren ondoren ez dakite zer gertatuko zaien: erresidentzia baimena izateak asko baldintzatuko du ondoren: lan jarduera zein administrazioaren laguntza sozialak jasotzea, adibidez. Gehiegi baldintzatzen duen egoera da gazte hauen bizitzan gizartearen inklusioari begira eta beldur dira ostrazismo sozialaz eta gizartetik kanpo sentitzeaz.

5.1.1. Rachid-en istorioa

M6 aurrerantzean Rachid deituko da. Rachid Marokoko gazte bat da eta elkarrizketa egin genuenean hogeitun urte zituen (2021eko uztailean). Elkarrizketaren momentuan Arabako zentro itxi batean zegoen bere neurria betetzen. Hilabete bat geratzen zitzaion ateratzeko.

Rachid eta bere familia ondo bizi zirela komentatu zidan. hamasei urterekin batxillergoko lehen kurtsoa iritsi zen. Baina zergatik etorri zen galdetzerakoan oso argi utzi zituen bere arrazoi nagusiak: “Familia, lana, izan nahi duzun uneren batera iristen zara, hau da, kontratupeko lan bati buruz ari naiz, hau da, kontratu bati buruz, badakizu? Oso zaila da zure seme-alabak ondo egotea horrela”.

Horrez gain, bere ametsa edo espektatibak hamahiru-hamalau urte zituenetik, Espainiar estatura iristean pentsatzen zuen abentura bat bizitzeko, futboleko jolasteko eta ikasketak burutzeko etorriko zela. Aitortzen du Nadorretik Melillara pasatzen askotan saiatu zela eta azkenean lortu zuela. Behin Melillan patera batean iristea lortu zuen eta Cádiz-eko abegi zentro batera eraman zituztela dio. Gero, bost edo sei adingabe Sevillatik hurbil zegoen beste abegi zentrori bideratu zituzten. Behin Sevillan, hirira iritsi zen autobusez bera bakarrik eta han kale egoeran dio, dirua lortu zuen meskita batean Valentziara iristeko. Kale egoeran berriro ere, hamasei urterekin, Bartzelonara iritsi zen eta bere ideia Frantziara joatea zen baina Euskadin bukatu zuen. Ertzaintzak paperik gabe aurkitu zuen eta hizkuntza jakinik gabe. Azkenik, Ertzaintzak Bizkaiko abegi zentro batera eraman zuen.

Abegi zentro horretan dio, gutxi gora beherako ratioa hirurogei pertsonakoa zela eta han berrehun eta berrogeita hamabost adingabe zeudela. Horrela kurtsoak eta ikasketak eskatzea zaila izan zen berarentzat. Azaltzen du segun eta nolako jarrera daukazu zentro batera edo bestera eramaten zaituztela. Bere kasuan, denbora libre asko zuen, kalean asko elkartzen zen bere parekideekin, eta Bizkaiko auzo konkretu bat aipatzen du non argi ikusten den “ghetto” bat bezala dela kolektibo honentzat⁴. Bere jarrera ez zen hain ona izan eta Bizkaiko beste abegi zentro batera bideratu zuten. Behin han sartuta, hamazazpi-

⁴ (Cas): “Ahí es donde empieza todo” dio.

hemezortzi urte zituen eta Helduen Eskolan ikasten hasi zen erderazko klaseetan. Hala ere, puntu honetan hainbat delitu eginak zituen, eta zortzi judizioen zai zegoen. Delitu bezala aipatzen ditu adibidez agresioak, zentroko altzariak haustea. Neurriei begira, barneratzea, zaintzapeko askatasuna, komunitateari lanak eta eguneko zentroa izan zituen. Azkenean, elkarrizketatzeko momentuan barneratze neurrian zeramatzan bi urte t´erdi eta momentu horretan irtetear zegoen (3º fasean).

Hogei urterekin, bere bizipenak aztertuz, Justizia Sistemari buruz dio zentratu egiten zarela, ez direla neurri hain txarrak izan. Hezitzaileei buruz dio, beti esan diotela denbora aprobetxatzeko. Barneratze zentroan DBH bukatzen ari zen. Kirol asko egiten zuen, drogak utzi zituen eta pentsamendua ere aldatu zitzaioela kontatu zidan. Azkenik, pazientzia asko landu zuela ere. Hala ere, neurri oso luzeak izan dituela aipatu zuen, gutxiago iraun beharko luketela, esanez, “nik ez nuen hainbeste gauza egin hainbeste denbora egoteko”. Baina orokorrean lagundua sentitu da barneratze zentro desberdinen artean. Familiari ez dio ia ezer aipatu. Elkarrizketaren unean hilabete bat barru bukatuko zuen neurria, eta urduritasunarekin kontatu zidan Eusko Jaurlaritzaren Inklusioaren laguntzaren zai zegoela bere bizitza berbideratzeko behin aske izanik. Bere ametsa Gizarte Hezitzailea izatea dela kontatu zidan. Baina hala ere, lau urte pasata bere herria eta familia utzi zuenetik, onartu zidan ez litzatekeela etorriko. Etorri nahi dutenei hurrengo esaten die: “ez jokatu bizitzarekin, saiatu beste era batera etortzen”.

5.2. LATINO-AMERIKARREN INTEGRAZIOA

Elkarrizketaturiko latino-amerikar guztiak haien estatuetan geratu ziren familiaren kargu bere amak Espainiara bidaiatzen ari ziren bitartean. Urte batzuk geroago bere amekin elkartu ziren helmugan. Sei gazteek patroï berdintsuak jarraitzen dituzte migrazioaren aldetik: amak edo amak eta aitak etorri ziren lehenengo eta urte batzuk geroago, haiek. Hegazkinean etorri ziren turista moduan. Latino-amerikar hauen kasuan, gehiengoei delituak egiteagatik ikuskaritza askatasuna eta barneratze zentroetan egonaldiak zein eguneko zentroetako egonaldien neurriak aplikatu zaizkie. Latino-amerikarren artean erraztasun gehiago somatzen da hizkuntza gaztelera delako eta honek erraztasuna suposatzen duelako lurraldetik mugitzeko zein jarduera profesionala garatzeko. Baita ere, bere familia Espainian egotea euskarri bat suposatzen du.

Latino-amerikar adingabeen familia aztertuz, haien bizitzaren une zehatzean haien erreferentziazko helduengandik bananduak egon dira. Beste batzuek aita, aitona edo osaba-izebekin gelditu ziren. Gehienezko kasuetan haurrak izanik beren herrialdeetan bere familiarekin egotera ohitzen dira, bere amaren omnipresentzia normaltasunarekin biziz. Batzuk L3 bezala, hiru urte egon zen EAEra iritsi zen arte. Baina beste batzuek, L2 edo L4 bezala, hamar-hamabi urte igaro zituzten beren herrialdeetan beste familiarren kargu.

Oso latza izan da gehiengoarentzat beren herrialdeak uztea. Nostalgia somatzen zaie batez ere nerabeak izanda etorri direnean (hamabi-hamahiru urterekin). L6 eta L3 ezik, beste guztiek ez zuten Espainiar estatura etorri nahi. Orokorrean helmuga estatuan familiarekin integratzeko orduan ez zituzten arazo handirik eduki, baina talkak egon ziren. L2k ez zien bere guraso biologikoei kasurik egiten: “Oso arraroa zen, ez nuen ezagutzen” eta “Ez nintzen beraiez gogoratzen”, “ez nien ama eta aita deitzen”, berarentzat bere gurasoak bere aitona eta amona ziren. L2 bi aita eta ama biologikoak helmugan elkarrekin eduki dituen gazte latino-amerikar bakarra da. Besteen kasuan, beste anai-arreba ordeak, aita ordeak eta

familia monomarentalak izan dituzte. Sei gazteetatik hiruk (L4, L5 eta L6) familia monomarentalak izan dituzte. L6k Latinoamerikako herrialde desberdinetan kale egoerak bizi izan zituen zortzi-bederatzi urtetatik hamalau urtetaraino (bere osaba-izebak preso sartu zituzten eta)⁵. Momentu horretan sustraiak dituzte beren jatorrizko lurraldean, hau da, eskola, lagunak eta ezagunak. Espainiara etortzea sustrai horrek moztea eta puskatzea suposatzen du. Zenbaiti esanzitzaieen oporrak igarotzea etorri zirela, baina ondoren ezin izan zuten haien jatorrizko estatura itzuli. Laburbilduz, aita-amarekin berriz elkartzeko unean, adingabeen gehiengoek, haien hitzez, sentsazio arraroak zituzten, batzuek erabat ahaztu ziren haien aita-amaren irudiaz edota ez zieten kasu egiten.

Behin Euskal Autonomia Erkidegora iristerakoan, eskolara joaten hasi ziren eta sozialki pixkanaka barneratzen joan ziren haien inguruneetan eta parte hartzen zituzten jardueretan.. Batzuek L1 eta L4 bezala izaera irekiagatik erraztasun gehiago izan zituen lagunak egiteko. Baita ere, haien harira eragina du zein nolako inguruneekin harremanak izaten diren. Batzuek esaten dute kontziente direla zer-nolako lagunak aukeratu zituzten. Horrela, batzuk drogak kontsumitzen hasi ziren, bereziki kannabisa, haien iritziz, inguruneagatik, gatazka kultura, diskriminazioa eta bakartasuna bai baldintzatzen dituztelako.

Adibidez, L4k jende asko ezagutu zuen, bere hitzetan oso lagungarria delako eta esaten du futboleak zebilela eta kuadrilla bat egin zuela baina gero gauzak aldatu zirela: “beste alde batzuetatik joan nintzen eta dagoeneko futboleak aritzea ez zen gauza bera [...] ez zen gauza bera “zerbait hartu” eta koadrilararekin futboleak aritzea, eta koadrila aldatu eta oso urrutira joan nintzen”.

L6ren hitzetan “ni arazotsu samarra zen herrialde batetik nentorren (Argentina) [...] han arazo asko izaten dira beti. Hemen (Bizkaian) nire lagun latindarrekin hitz egiten nuen, eta esaten genuen zu auzo gaizto batetik zatozela; beraz, zuk txarra izan behar duzu”. Horren adibide izan liteke nola gazte batzuek beren identitateak helmugan berreraikitzen dituzten beren jatorrizko herrialdeei buruzko estereotipoetatik abiatuta

Eskolan duten egoera aztertuz, beraien jatorrizko estatuetan eskolara joanziren Espainiara etorri arte (gehiengoak). Hemen ere denak eskolarizatuak izan ziren L5 ezik ezin izan zuelako matrikula egin kurtsoak hasiak baitziren. Aipatu beharra dago elkarriketatutako guztiek ez dutela lortu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. L2k bi aste barru utzi zuen euskara eta ingelera oso zailak egiten zitzaizkiolako. Beren hitzetatik ateratzen da hezkuntza sistema desberdinen talka beste talka askoren artean (kultura, herrialdea, jendartea...etab.). Batez ere hezkuntza sisteman talka handiagoa erreparatzen da helduagoak etortzen direnen artean (L2,L5 eta L6).

Helduagoak etorri zirenen artean, haien Estatuetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistemak ezberdintasun handia suposatu zuen, zein adineko aldaketa propiokoak zein beraien etortze bidaia baldintzatu zuten haien eskolaratze prozesua eta jarduerak.

Eskolatik, egoera administratiboa aztertzerara igaroko gara. Latino-amerikar adingabe etorkinak haien gurasoekin legezko elkarretaratzea egiteko zenbait baldintza bete behar

⁵ Hau da Bizkaian “banda organizatu” batean egon den elkarriketatutako nerabe bakarra.

dituzte eta hauetako gehiengoek ez dituzte baldintza horiek betetzen. Horren ondorioz, elkartze hori egitea erabakitzen dute turistako bidaiaren baimen baten bidez. Baita ere, kasu zehatz baina gutxietan gertatu zen naziokotasun bikoitza izatea (L2).

Magrebi adingabe etorkinekin alderatuz, faktore hauek izanik (Hizkuntza eta familia) haien urduritasuna edota antsietatea bere egoera erregularizatzeko gutxiagoa da, baina haien erregularizazio ezak baldintzatuko du bere bizitza, adibidez lan jarduera gauzatzeko. Batzuek jadanik lanean daude eta besteak lan bila daude. Beste batzuek, haien etorkizunera begiratuz, helburu nagusia Espainiar Nazionalitatea lortzea da. Magrebtarrekin alderatuz ere, beren migrazio prozesua askotan borondatez kontrakoa izan daiteke.

5.2.1. Miguelen istorioa

L1 aurrerantzean “Miguel” deituko da. Miguel Peruko gazte bat da eta elkarrizketa uanean hemezortzi urte zituen (2021ko uztailean). Elkarrizketa Bizkaiko eguneko zentro batean egin genuen.

Bere ama Bizkaira etorri zen berak zortzi urte zituela. Bere aitarekin geratu zen baina preso sartu zuten eta amonaren kargupean geratu zen. Bere nortasunari buruz oso mugitua dela dio eta horrexegatik aipu egiten du bere aitak ez zuela semea bide okerretik joatea nahi. Bere familiari buruz dio ez dela “hoberena” baina beti egon dela hor. “Zure amarekin joan” esaten zioten hamar urterekin, “han hobeto egongo zara”. Berak onartzen du beti kalean zegoela, egunez, gauez, eta festetan sartuta oso gaztea izanik. Behin bere arrebaordearekin (bere aitak beste emakume batekin eduki zuena lehenago), eta beste lagun batekin izandako anekdota kontatu zidan. Kalabozoan bukatu zuen, bere lagun adingabe horrekin kotxean gidabaimen barik zebiltzalako. “Mordida” egin zuten, edo poliziari ordaindu zioten eta aste gutxi barru bere anai batekin hegazkinez bidali zuten amarengana. Berak ez zuen ezertarako etorri nahi, bere lagunak eta familia han baitzeuden. Berak dio turista bezala etorri zela eta gurasoen engainu bat izan zela hemen geratzeko. “Buelatu egin nahi dut, han daukat nire bizitza”. Zortzi urte zeramatzan Euskal Herrian eta oraindik hunkitura hori azaleratu zuen nirekin hitz egitean.

Behin hemen bere amarekin ez zuen arazorik izan eta “auzo onenetako batean” bizi zela esan zidan (Bizkaiko herri batean). Eskolan hasi zen, futbolean, lagun asko egin zituen, izan ere, bera oso lagunkoia dela esaten du. Hemen DBHko 3.mailara iritsi zen, baina konpainiak ez ziotela lagundu onartu zidan, drogekin jolastu zuela gutxi gora behera ere onartu zidan. Delituei buruz ere gutxi esan zuen, bakarrik estortsio eta intimidazioagatik jarri ziotela internamendu luzea. Berak dio zortea eduki zuela bere amak abokatu bat ordaindu zuelako (300 euro sesio bakoitzeko azaltzen du). Internamenduan egon zen lehenik baina epaitegietan ihes egin zuen eta “busca y captura”-n egon zen urte batez. Bere amaren etxetik ez zen pasatzen polizia zegoelako eta lagunuen etxeetan geratu zela dio. Azkenean ordainezko abokatuak eta epaileak akordu bat egin zuten eta zaintzapeko askatasuna adostu zuten. Elkarrizketaren momentuan bost hilabete geratzen zitzaizkion gune irekian (eguneko zentroan). Kurtsoak egin ditu eta derrigorrezko ikasketak amaitzeko Helduen Eskolara joango dela dio. Hala eta guztiz ere, ez zen ondo sentitzen, neurriekin bukatu nahi zuen eta.⁶

⁶ (Cas): “¿Qué pinto yo aquí?”

Gazte Justiziarekiko jarreran anbigualentzia somatzen zaio. Epailea, emakumea, hoberena dela dio “guztion ama bezalakoa”, “berak ulertzen gaitu”. Gizarte Hezitzaileei buruz, batzuk onak direla esaten du baina beste batzuek ez dituztela gazteen arazoak ulertzen eta are gehiago barneratze neurrietan. Sistema osatzen dutenen politiko eta legegileei buruz dio “ratas” edo euskaraz “xuhurrak” direla, baina gero esaten du denetarik dagoela eta “zuk sortzen dituzun arazoak zuk konpondu behar dituzula”⁷. Elkarrizketa amaitzeko aipatzen ditu bere aitak erakutsi zizkiola printzipio batzuk pertsona guztion hobe beharrez: errespetua, hezkuntza edo edukazioa eta umildadea direla garrantzitsuenak batik bat.

5.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTE JUSTIZIA SISTEMAREN BARRUKO ESPERIENTZIA BATZUK

Neurri eta kasuetan desberdintasun asko aurkitzen dira eta horregatik, ezin da gazteen justizia-sistemari buruz duten pertzepzioaren eta iritziaren oinarri sendorik sortu. Gauzatutako delituen gehiengoak lapurretak eta ondoren erasoak dira. Hamabost gaztetik, hamahiru barneratze neurritik igaro dira, hamabost egunetik hiru urtera arteko epea izanik. Denek ikuskaritutako askatasuna izan dute. Baita eguneko zentroetan egonaldiak izan dituzte gehienbat. Batek bakarrik izan du komunitateari lanak (M6). Gazte Justizia sistema instituzio malgua dela ikus dezakegu, adingabe etorkinen egoera pertsonaletara moldatzen delako. Zenbait adingabeek zerbitzu juridikoak erabiliz haien neurriakarintzea lortu zuten eta kasu batzuetan ikuskaritutako askatasuna eta eguneko zentrorako egonaldia alboratu dute:

Adibidez, L6k bere zaintzapeko askatasuna aldatu nahi izan zuen denbora libre asko zuelako eta nahiago zuen eguneko zentro batera joatea “ezin naizelako geldirik egon”. Baita ere, droga kontsumoengatik justiziak erabaki zuen tratamendu ambulatorio bidez betetzea L5en kasuan, ikuskaritutako askatasuna eta eguneko zentroan egonaldiekin batera. Tratamendu ambulatorio hau egoki etortzen zaie kontsumoa mozteko eta berak ere hori esan zuen elkarrizketan.

Gazte migratzaile hauei somatzen zaie kontzientzia hartzen dutela neurri hauek haien egoera zehatzari egokituak daudela, justiziak neurri hezitzaileak ezartzen dituela, alegia. Batzuek, neurriak betetzen ari ziren momentuan epaiketa gehiago zuten egindako delituengatik. Haien iritzia EAEko Gazte Justiziarekiko ezberdina da eta neurrien arabera ikuspuntu hau aldakorra da. Hau barneratze luzeak izan dituzten artean ikusten da gehiago. Baina zenbait puntu komunak kontuan hartu behar dira Gazte Justizia Sistemak hartzen dituen gune ezberdinetan (hurrengo azpiatalean azalduko da).

5.3.1. Ikuspuntu ezkorren eta ikuspuntu baikorren argazkia

Barneratze neurriak aztertuz, M7, M8, L3 eta L4k diote gehiago merezi zutela egin zutenagatik eta adibidez, M7k dio nahiago duela barneratzea “guztiarekin behingoz bukatzeko”. Hau da, elkarrizketaturiko lau hauek barneratzearen neurriari buruzko ikuspuntu baikor bat daukate. Hala eta guztiz ere, kontrako erpinean kokatzen dira hurrengoak: “denborarekin kontu gehiago eduki beharko lukete” (M3); “Asko kostatu zait

⁷ (Cas): “Tu cagada la limpias tú”; “ tampoco te vas a ir de rositas”.

irtetea” (M4) eta “Ez dut hainbeste gauza egin hain denbora hori guztia izateko” (M6). L6k dio denbora asko pasa duela baita ere.

Ikuspegi ezkorren aldetik, neurrien iraupen luzea, irteteko askatasun eza, kontentzio fisikoak, hezitzaileen trataera, eremu pertsonal eza, arau estu eta zorrotzak, adibidez ordutegi finkoak eta zenbait gauza egiteko aukera ezak dira. Baina orokorrean eta argazkia jasoz, ikuspuntu baikor gehiago dira ezkorrak baino:

Gehiengoak eskerrak ematen dizkiete justizia eta erdi irekitako zentroyen langileei. Gehiengoak lagunduak sentitu dira, ondo tratatuak eta eskerrak ematen dizkiete. Zenbait neurriak lagundu die droga kontsumoarekin amaitzea “bizitza normala” (M7) lortuz eta beste hauen guztien hitzetan ere bai: M1, M4, M5, M6, M7, L5 eta L6. M1en hitzak oso nabarmengarriak dira droga kontsumoaren arlo hau ulertzeko eta baita ere Justizia Sistemaren dinamika lerroak ulertzeko (kasu honek eguneko zentro neurria eta zaintzapeko askatasuna zeukan):

4 urte eman ditut porruak erretzen [...] horiei esker gauza asko egiten ari naiz, badakizu? Zuk zeure bizitza egin ahal izateko neurria jartzen dizute, ez dizute jartzen zu gaizki jartzeko. Lagunduko dizute. Adibidez, egun osoan kalean banago, jaten ematen didate, tailerrak egiten dituzu edo Barik kargatzeko dirua ematen dizute.

Eta berarekin jarraituz:

Marokon zuk egiten duzu hori eta zuzenean kartzelara joaten zara. Hemen aukera ematen dizute zure bizitza egin ahal izateko [...] ni damutu egiten naiz. Nik nire bizitza egin ahal izateko aukera eman zidatenez, lagundu egiten dizute, ez baitut inor laguntzeko edo irakasteko, ni bakarrik nago.

M1en argi ikusten da Gazte Justiziako balore asko bereganatu dituela eta horretaz oso kontzientea dela. Hala ere, arlo negatiboak ere atera daitezke. M8k dio “politikariei erraza iruditzen zaie kalean drogatzen bizi den mutil bati arau bat egitea. Ez zaio buruan sartuko” eta L6en ustetan “haiek laguntzen saiatzen dira azkenean. Adingabe zarenean gauzak egiten dituzunean, lagundu egiten dizute. Nik kartzelan egon diren lagunak ditut, eta ez da gauza bera”. Beste gazteek Gazte Justizia Sistemaren politiken eta organizazioaz ez zuten asko hitz egin “ezjakintasunagatik”.

Baita ere, adierazi ziguten barneratzen neurriekin denborari etekina eman zietela ikasketak gauzatuz eta magrebtarren aldetik hizkuntza hobetzeko. Beste zenbait egoeretan lortu dute haien egoera administratiboa erregulatzea. Latino-amerikarren hitzez, barneratze neurriak lagundu diete bulkada psikologikoa izateko eta haren sentimenduen kudeaketa hobea egiteko eta beste kideekin harreman solidoak izateko, dirua kudeatzen jakitea, egunerokotasuna izatea eta enpatia lantzea.

Magrebtarren alde ezkorren aldetik, prozesu judizialean izan dute babes eza, hau da, abokatuen jarduerak ez ziren aproposak izan haien eskubideak eta egoera defendatzeko orduan: “berandu iritsi dira zitetara” (M9) edota “Uste dut askoz hobeto eraman behar dituztela atzerriko adingabeen kasuak, ez baitute zure kasurako lanik egiten adingabe atzerriarra bazara. Nik epaiketa-egunean bakarrik ikusi nuen abokatua, eta esaldi bakarra

esan zuen” (M4). Epailen ikuspuntu baikorra dute eta are gehiago ezarritako neurrien harira. Orokorki eta helduen justizia sistemarekin alderatuz, adierazi zuten lagunduak izan zirela.

Hezitzaileen aldetik kontatu ziguten orokorrean ondo lagunduak egon direla, baina batzuek ez dituztela nerabe hauen egoerak ulertzen.

6. ONDORIOAK

Adingabe etorkinek bizipen anitzak igarotzen dituzte, haien identitatean eraginak izaten dituztenak. Autoktono baten eta gazte migratzaile baten bizipenak erabat ezberdinak dira lanean ikusi dugun bezala. Bi faktore dira garrantzitsuak: beste ohitura eta ikuspuntu batzuk dituzte jatorrietan, adin goiztiarrean zenbait ardua hartzen dute bere gain eta hau migrazio prozesuarekin areagotzen da. Nerabezaroaren identitatearen eraikuntzak ere efektu handia du. Laburbilduz, haien historia pertsonala egoera zailak eta bizipen anitzez osatua dago.

Magreb-eko gazteen etortzea eta haien barneratzea gizartean hobeto uler daiteke abegi egoeratik, oso garrantzitsuak baitira, beren babes edo arrisku faktoreei begiratuz. Haien erregulazio egoerak hobekuntzak behar ditu gizartean, barneratze hobea izateko helburuan. Zailtasunak areagotzen dira dokumentazio eza dutenean eta Espainiako araudiak ez du egoera hau faboragarriagoa egiten. Kritika ere egin nahi zaio sistemari, izan ere, legediak hutsune bat uzten du erreferente gabeko adingabeen delituak erregulatzean: ez dago aukera handirik kolektibo honetan barneratzerik ez egoteko. Beste proiektu eta proposamen berri batzuk beharko lirake bai harreran eta bai delituei erantzuna emateko. Adibidez, hezitzaile talde batean bizitzea edo harrera etxe basiko batean bizi izateko aukera gehiago izatea ona izango litzateke, gazte hauen delitugintza kronifikatu baino lehen.

Latino-amerikar gazteen etortzean haien erlazio familiar, eskola eta komunitarioen nondik norakoak begiratuz, hobe ikus dezakegu beren barneratze prozesua. Zailtasunak bizi dituzten nerabeak dira, aldaketa sakona suposatzen duen adinean, sozializatzen eta errealitate berrira ohitzen ari diren bitartean. Beren barneratzeak ere kontuan hartzekoak dira, izan ere, nahiz eta familia bertan eduki, ikusten den bezala euskarri familiar eta soziala ahulagoa izan ohi da beren gurasoak (batez ere amak) ere migratzaileak direnez gero.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Sistemaren harira, bizipen eta neurri anitzen kasuak daude. Batzuk denbora galtzea sentitzen dute eta beste batzuk pentsatzen dute ikasketak gauzatu behar zituztela aukera gehiago izateko. Barneratzeek sozializazio progresiboko faseak dituzte, baina batzuetan sentitzen dute aldaketa sakona suposatzen duela. Bestalde, gehiengoek partekatzen dute Gazte Justizia Sistematik igarotzea era handian modu positiboan eragin zuela (ikasketak burutzeko, drogak uzteko, egoera psikologikoa hobetzeko edota sozializazio hobea bat lantzeko batik bat).

Adingabeen justiziak gizarte- eta hezkuntza-neurriak ditu oinarri. Neurri bakoitzaren funtzioa, gizabanakoa ez ezik, komunitatea eta biktima ere seinalatzen dituena da, gaizkilea gizarteratzen laguntzeko. Horrela, erasotzailearen gizarteratzeak gizarte kohesioa lortzen laguntzen du komunitateko kide eta eragile guztien artean. Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justizia Sistema Nazioarteko marko juridikoan oinarritzen dela ulertuz, esan dezakegu eskubideen karten ildoak jarraitzen direla, neurriak malgutasun prisma baten

bidez aplikatzen direlako eta pertsonaren ingurabar pertsonalak kontuan hartzen dituelako. Gazteek batzuetan aukera dute beraiantzako hobeak diren neurriak aplikatzeko eta hau faktore garrantzitsu bat da haien sozializazioan, jarrera aktiboa izanez. Haien hitzak zenbait ikuspuntu ematen digute migrazioen harira, mezu garrantzitsuak emanez instituzio eta agente publikoei haien ezaugarriak kontuan hartzen jarrai dezaten.

Dena den, eta esan bezala, alternatiba hobeak eskaini beharko lirateke bai harreran eta bai emantzipazioan. Behin barneratetik ateratzean askok beldur handia izaten dute bizitza “normal” edo “errealera” bueltatzeko. Egon badaude Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen Inklusio edo emantzipazio laguntzak eta alternatibak (EAEko hiru lurraldeetako Foru Dekretuetan aurki daitezke laguntza hauen nondik norakoak)⁸, baina ez dira kasu guztietan ematen, edota hauek lortzea prozesu eta baldintza batzuk betetzea suposatzen du, adibidez, egoera erregular batean egotea. Gazte hauek askotan erreminta faltak dituzte heldutasunera iristeko, eta behin Gazte Justizia Sistematik aterata, baliteke gizartean berriro ere bazterkeriara bueltatzea. Ikusten da nola Gazte Justizia Sistemak ahal duen heinean laguntza eta bulkada bat ematen duen Inklusio laguntza hauekin, baina errekurso urriak dira fenomeno sozial guzti honen ahultasunak eta beharrak betetzeko. Hau beste ikerketa batean hobeto begiratu eta sakontzeko gai bat da, hau da, gazte migratzaile hauen justiziatik gizarterako emantzipazioak nola ematen diren aztertzea. Baita ere, oso garrantzitsua den zerbait aztertzeaz geratu da: emakume adingabeen delitugintza eta beren esperientziak.

Bestalde, Saharaz beherako Afrikako migrazio prozesuak oso desberdinak dira eta herrialde, pertsona eta ibilbide anitz aurki daitezke. Sarreran aipatutako Ibrahim Balderen istorioa irakurriz gero, hobeto ulertuko dira idatzitako hitz guzti hauek. Afrika kontinente oso handia da eta herrialdeka edota tribuka desberdinak behar litzake. Askok Tangerangreko basoetan bukatzen dute harresiak saltatzeko edo paterak hartzeko “programa” desberdinen zai. Programa hauek batzuetan ez dira ondo ateratzen hil edo bizitzeko kontua direlako. “Programak” giza trafikoa direla aipatu behar da, dirurik gabe ez dagoelako programarik. Ibrahim Baldek bere anaia programa horietako batean galdu zuen. Berak lortu du Europara iristea, Mali, Libia, Aljeria eta Marokotik pasata. Bide oso luze eta latza pasa zuen honaino iristeko. Lehenengo, basamortuko kilometroak oinez eta gero, Boko Haramen esklabutzan erori zen. Ihes egitea lortu zuen eta azkenik, ezkutuka, Magreben sartu zen. Azkenean Europara iritsi zen 2019an. Ibrahimak kontatzen duen bezala Marokoko kostako basoetan izkututzen dira Afrikatik atera nahi duten migratzaile asko, poliziaren beldurrez eta askotan errekurso eta janaririk gabe. Lan hau ixteko, bere hitzak aipatu nahi dira:

Basoan bizi zarenean, Tangerangren edo Nadorren, berdin dio non, bada beste baso bat, ikusten ez dena, bakoitzak bere baitan daramana. Jendea isilik dago, inork ez du ezer kontatzen, baina begiratzen diozu begietara, eta sumatzen duzu baduela zerbait, ihes egin ezin diona. Polizia erraza baita driblatzen, baina beste hori ez. Beste hori esaten dudanean esan nahi dut bakoitzaren historia. (127-128 orr.)

A zein nolako mugak dauden harresi ikusezin eta fisikoz betetako denona den mundu honetan. Muga hauek guztiak hobeto ezagutuz egingo dugu elkarlana bai justizian, gizarte hezkuntzan eta azkenik eta garrantzitsuena, gizabanako eta gizarte bezala.

⁸ IV Gizarteratzeko Euskal Plana 2017-2021.

Erreferentziak

- Albrecht, H., 1997. Ethnic minorities, crime, and criminal justice in Germany. *Crime and Justice*, 17.
- Arce, M., eta Fariña, F., 2007. Teorías de riesgo de la delincuencia: Una propuesta integradora. *Non*: F.J. Rodríguez Díaz eta C. Becedóniz Vázquez, edit., *El menor infractor: Posicionamientos y realidades*. Oviedo: Consejería de Justicia, Seguridad Pública y Relaciones Exteriores, 37-46.
- Arzallus Antia, A., eta Balde, I., 2019. *Miñan*. Susa narratiba.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2020. *Gazteen justiziako V. Plana EAE-n P.V. 2020-2024*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Cordero Arce, M., 2015. *Hacia un discurso emancipador de los derechos de las niñas y los niños*. Lima: Ifejant.
- Farrington, D.P., 1996. *Understanding and preventing young crime*. New York: Joseph Rowntree Foundation.
- Garavito, S., Sánchez, A., eta Carbarcas, Y., 2018. Menores inmigrantes no acompañados, las orillas de la vulnerabilidad, estatus de irregulares y su tratamiento al llegar a España. *Summa Iuris*, 285-296.
- García España, E., 2009. ¿Criminalización del inmigrante o protección del menor? Menores no acompañados y delincuencia. *La integración de los extranjeros: Un análisis transversal desde Andañucía*, 529-552.
- García España, E., 2014. Delincuencia de inmigrantes y motivaciones delictivas. *InDret*, 4.
- García-Moreno, C., eta Joan, P., 2013. El vivir transnacional de los inmigrantes cubanos en España. *Migraciones: Publicación del Instituto Universitario de Estudios sobre Migraciones*, 73-102.
- Giró, J., 2008. La difícil construcción de identidad entre los adolescentes hijos de la inmigración. *Non*: R. Susín eta D. San Martín, edit., *De identidades: Reconocimiento y diferencia en la modernidad líquida*. Universidad de la Rioja, 275-315.
- Harcourt, B., 2004. Rethinking Racial Profiling: A Critique of the Economics, Civil Liberties, and Constitutional Literature, and of Criminal Profiling More Generally. *The University of Chicago Law Review*, 1275-1381.

- Hondagneu-Sotelo, P., eta Ávila, E., 1997. "I'm here, but I'm there": The meanings of Latina transnational motherhood. *Gender & Society*, 548-571.
- Instituto Nacional de Estadística (INE), 2020. *Población por comunidades, edad (año a año), Españoles/Extranjeros, Sexo y Año* [online]. Hemen eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxi/Datos.htm?path=/t20/e245/p08/10/&file=02003.px> [2023ko otsailaren 9an ikusia].
- Kriminologiaren Euskal Institutua eta Eusko Jaurlaritza, 2020. *Gazte Justiziaren Zerbitzuaren Memoria, 2019* [online]. Donostia: Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri: <https://www.justizia.eus/dokumentazioa/2022/gazte-justiziako-zerbitzuaren-2019ko-memoria/webjus00-contentgen/eu/> [2023ko otsailaren 9an ikusia].
- Ley Orgánica 4/2000 del 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social. Madril.
- Marshall, H., 1997. *Minorities, Migrant and Crime*. Londres: Sage.
- Moreira, V., 2011. *Grupo de Amigos, género y delincuencia juvenil*. Doktore-tesia. Universidad de Santiago de Compostela.
- NBE, 1985eko azaroaren 29a. Adingabeen justizia administratzeko Beijing-en gutxieneko arauak. 40-33 erresoluzioa. Beijing.
- NBE, 1989ko azaroaren 20a. Haur eta Nerabeen eskubideen konbentzioa. 44/25 erresoluzioa.
- NBE, 1990eko azaroa. Nazio Batuen jarraibideak gazte delinkuentzia prebenitzeko. 45/112 erresoluzioa. Riad.
- Observatorio de la Infancia, 2020. *Boletín de datos estadísticos de medidas de protección en la infancia*. Madrid: Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030.
- Otsailaren 18ko 3/2005 Legea, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Pedone, C., 2006. Los cambios familiares y educativos en los actuales contextos migratorios ecuatorianos: una perspectiva transatlántica. *Athenea Digital. Revista de pensamiento e investigación social*, 154-171.
- Pulido, M., 2017. *Jóvenes de origen inmigrante en prisión: perfiles e historias de vida*. Madril: Instituto Universitario de Estudios sobre Migraciones, Universidad Pontificia Comillas.

- Ruiz, U., eta López-Riba, J., 2020. La sobrerrepresentación de menores extranjeros en los centros de internamiento. *Revista Española de Investigación Criminológica*, 18(1), 1-34.
- Salvador, R., 2013. El menor inmigrante como infractor penal. *Revista internacional en estudios migratorios (RIEM)*, 1-24.
- Save the Children, 2021. *Crecer sin papeles en España*.
- Serrano, A., 2011. *Criminología del desarrollo*. Universidad Oberta de Catalunya.
- Unesco, datarik gabe. *Youth* [online]. Paris: Unesco. Hemen eskuragarri: <https://www.unesco.org/en/youth> [2023ko otsailaren 9an ikusia].
- Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizum penala arautu duena. Madril.
- Vázquez, C., 2003. *Delincuencia juvenil: Consideraciones penales y criminologías*. Madril: Colex.